



IRRINTZIAREN OIHARTZUNAK

HOWLING ECHOES / LOS ECOS DEL IRRINTZI



Iratxe Fresneda Iratxe Fresneda Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakasle atxikia da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Bere doktore-tesian, Lars von Trier zuzendariaren zinematografia-lanetako emakumezkoen estereotipoak aztertu zituen. Irakasle bisitari izan da Nevadako Unibertsitatean (Reno, AEB), Lundeko Unibertsitateko Zinemagintza Eskolan (Suedia) eta Toulouse II - Le Mirail Unibertsitatean (Frantzia).

Idazle, gidoigile eta zinema-kritikari aritu da, eta zuzendari eta gidoigile lanetan hasi zen Euskadi Irratiko (EiTB) hainbat kultura-programatan. Gaur egun, hainbat kultura-erakundeekin programatzaile dihardu lanean, eta, horrez gain, ez-fikziozko gidoigintza irakasten du. Era berean, EHUn Ikasketa Feministak eta Generokoak unibertsitate-masterreko irakasle da. *Irrintziaren oihartzunak* lehendabiziko filma du, bai zuzendari, bai gidoigile lanetan.

Mirentxu Loiarke (Iruñea, 1938) sorkuntza-lanetan emandako erbestealdia kontatzen du *Irrintziaren oihartzunak* filmak. Loiarke Europako zinemagintzaren aitzindari zoro horietako bat da, haren izena ezagun egin ez bada ere. Zinemagile nafarraren memoria eta obra miatu asmo dituen begirada bat da *Irrintziaren oihartzunak*; topaketa baten kontakizuna, hezur eta mamizko altxor zinematografiko baten bilaketa: gogoratzeko zailtasunak dituen pertsonaia batena, edo gogoratu nahi ez duen batena.

Bizitzan izandako joan-etorrien eraginez ezaguna ez bada ere, Mirentxu Loiarke zinemagile nafarrak Espainiako Estatuan 1970eko hamarkadan ikusitako lan zinematografiko ausartenetako eta arriskatuenetako bat egin zuen: *Irrintzi* (1978). Ikus-entzunezko metafora bat da, eta euskaldunen nortasun kolektiboari buruzko hausnarketa egiten du. Dantzan diharduten gizon-emakumeak eta irudi estatiakoak uztartzen ditu; argazkietan jasotakoa dokumentutik harago doa, eta ikusleak sorkari filmiko honetan nabigatzera deitzen ditu, Celaya, Aresti eta Oteroren hitzekin batera. Luis Iturri zinemagilearen obra batean oinarritutako lan honi kalitatearen sari berezia eman zion Espainiako Zinematografiako Zuzendaritza Nagusiak, Trantsizio garaian izandako kontraesan zoragarri horien eraginez. Javier Aguirresarobe izan zen argazki-zuzendaria, Fernando Larruquert muntaketa-lanen arduradun, eta Mariví Bilbao aktore zenaren lankidetza berezia izan zuen.

Erbestean zein etxean, Mirentxu Loiarke ez zuen, ordea, bere ibilbidea lan horrekin amaitu, eta nolabaiteko introspektzio antropologikoa egiten jarraitu zuen hainbat euskal emakumeren begirada jasotzen zuen erretratu baten bidez. *Euskal Emakumeak* (1981) lanean, Ikuska 12 sailaren barruan, Loiarke emakumeak XX. mende amaierako gizartean zuen espazio soziopolitikoa azaldu zuen. Euskaraz filmatua da lana, eta hura ere Javier Aguirresaroberekin lankidetzan. Film labur dokumental horrek begirada zorrotza botatzen dio emakumezkoek 1980ko hamarkadan zituzten tokiei: azokak, haur-parkeak, arrain-fabrikak edota gizonen pixatokiak.

Irrintziaren oihartzunak lanean *Irrintzi* ezkutatutako “egia” horien eta *Euskal Emakumeak* filmeko emakumeen hitz begitaziodunen barrena ibiliko gara; erakutsitako sekretua izango dugu abiapuntu, baina Loiarteren obra eta izaera zein den osorik sekula kontatu gabe. Haren ahotsa berreskuratuko dugu, haren historia, bidean geratu ziren kontakizunak, eta horietara bueltatuko gara Marc Légasse idazlearen “Gastibeltzaren karabinak” gisa.

Gainerakoa, historia da. Eta historia horretan jakin-minez murgilduko gara. Hala, bere buruan filmak egiten jarraitzen duen emakume baten ibilbidea bistaratuko dugu, porrot egindako proiektuak proiektu, zapuztutako ilusioak ilusio, bizitzak eragindakoak gorabehera, zinemagile zein beste ororen gainetik.

Ekoi-zpena/Producción/Production
Saioa Etxebarria /Iratxe Fresneda

Pimpi & Nella Produkzioak
irrintziarenoihartzunak@gmail.com
irrintziarenoihartzunak.eus

Zuzendaria/Directora/Director
Iratxe Fresneda

Gidoia/Guión/Screenplay
Iratxe Fresneda

Argazkia
Saioa Etxebarria

Muntaketa/Montaje/Édition
Laurent Dufreche & Demetrio Elorz

Musika/Música/Musica
Kiko Monzón
Anari

Antzelezleak/Intérpretes/Cast
Mirentxu Loyarte

Formatua/Formato/Format
DCP

Iraupena/Duración/Running Time
54 min.